

BALEIKE

265. ZENBAKIA. EURO BAT
2017ko MAIATZA

www.baleike.eus

JUAN LUIS BLANCO TIPOGRAFIA DISEINATZAILEAK

HARRI

EUSKAL LETRA TIPOA

DISEINATU DU, BESTEAK BESTE.



TYPE DIRECTORS CLUB

ELKARTEAREN NAZIOARTEKO SARIA



JASO DU 2017AN.



BALAY
GARBIGAILUA
3TS853B

269€



5,5 kg

A+++

1.000 bira/min

BOSCH
GARBIGAILUA
WAN2426XES

495€



7 kg

A+++

1.200 bira/min

AEG
GARBIGAILUA
L6FBI824U

379€



8 kg

A+++

1.200 bira/min

TOP 21 BILDUMA

Maiatzaren 1etik 18ra

A++

INOX

499€

ZANUSSI
HOZKAILUA
ZRB34315XA

No frost

185 x 60 cm



5 funtzio

INOX

479€

BOSCH
ONTZI GARBIGAILUA
SMS25AI05E

A++



No frost

170 x 60 cm

A+



399€

BOSCH
HOZKAILU KONBINATUA
KGN33V04

TIEN 21



ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endañetazumaia.com



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.eus

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkartea@baleike.com

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Maialen

Odriozola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet,

Peio Romatet, Arnaitz Rubio Aprea, Iosu Alberdi,

Jose Manuel Castillo, Jabi Gonzalez Toston,

Izaskun Urbieta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

publizitatea@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

||
baleike +

HERRITARREN ENERGIA GARAILE ATERA ZENEKOA

5

elkarrizketa

ARRI EIZAGIRRE

23

elkarrizketa

JUAN LUIS BLANCO

30

agenda

MAIATZA-EKAINA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udalak



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua




MAIATZEAN

Zumaia txartela erabilia
ezusteko opariak!!!



Zumaia Udala



CAJA RURAL

Bizikleta Eguna Ekainak 17

Egitaraua laster
izango dugu prest.

*Animatu
parte hartzera!*



Zumaia Udala

“Astialdiaz aparte, erabilera funtzionalagoak izan ditzakete trenbide zaharrek”

TESTUA ETA ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

Vasco-Navarro eta Urolako trenak aztertu ditu Arri Eizagirrek, etorkizunean erabilera berririk izan ote dezaketen jakiteko. Astialdiaz gain, zenbait kasutan, uste du eguneroko mugikortasunerako egokiak izan daitezkeela.



Urolako trena behin betirako itxi zuten urte berean jaiotakoa da Arri Eizagirre (Zumaia, 1987). Ez zuen garraibide hura ezagutu, baina azken bost urteotan trenbide kontuetan murgilduta dabil, doktore tesia dela eta.

Nolatan hasi zinen trenbide zaharren inguruko lan hauek egiten?

Duela lau zapabost urte ondarea eraberritzearen gaineko master bat egin nuen, eta orduan Urolako trena aukeratu nuen amaierako lana egiteko. Trenbidea osatzen zuten elementu guztien katalogoa egin nuen, bakoitza bere fitxarekin. Zumarragatik Zumaia. Eta hor piztu zitzaidan kezka: trenbidea, geltokiak eta gainerako elementuak osotasunean hartu behar dira kontuan, eta ez elementu isolatu bezala. Eta hasi nintzen aztertzen, adibidez, geltokiak eta trenbidearekin zerikusia duten beste eraikinak nola integratu diren hirigintza plan berrietan. Inguruan etxebizitzak eraiki direnean, geltokia ondo integratu al da espazio berrian? Urretxun, adibidez, geltokiari bizkarra emanez eraiki ziren etxeak...

Urolako trenaren geltoki guztiak mantendu al dira?

Euskal Herrian itxi zen azken trenbidea izan zen Urolakoa, eta estazio guztiak –13– mantendu dira, baina pasoko etxe batzuk galdu egin dira.

Eta orain zertarako erabiltzen dira estazio horiek?

Denetarik dago. Zumarragakoa etxe okupatua izan zen eta orain abandonatuta dago; Urretxukoa gaztetxea da eta nahikoa ondo zainduta daukate; Aizpurutxukoa guztiz abandonatuta dago; Azkoitikoan udal liburutegia jarri dute; Azpeitikoa trenaren museoa da; Lasaokoa eta Zestoako Balneariokoa kanpotik ondo daude, baina barrua utzita; Iraetakoa eta Arroakoa okupek erabili izan dute eta nahikoa utzita daude; eta Zumaian, goikoa tren geltokia da gaur egun eta Moilaberrikoa hor daukagu, hutsik, ez dakigula oso ondo zer egin.

Bere garaian agertu zen Urolako trena berreskuratzeko asmoa, Azpeitiraino behintzat...

Bai, eta oraindik agertzen da asmo hori lurralde mailako arauetan. Industriari begira zegoen planteatuta, gaiak Pasaia-ra garraiatzeko, baina Ucin itxi zuten eta asmo horiek bertan behera gelditu ziren. Baina asmo horiek eragina izan zuten jabeagoan...

Zer eragin?

Zumarraga, Urretxu eta Azkoitiko geltokiak udalen esku gelditu ziren, baina Azpeititik Zumaia bitartekoak ez, horiek oraindik Jaurilaritzak dauzka, hain zuzen ere, plan hori hor dagoelako. Beste berezitasuna da Zumaia Azpeitiraino ezerk ez duela gurutzatzen trenaren bidea, libre mantendu da, bazpaere.

Baina uste duzu oraindik aukera badagoela Urolako trena

berreskuratzeko, Azpeitiraino besterik ez bada ere?

Ez zait iruditzen. Trenbideak, lehen ere, industriari lotuta garatu ziren, gaiak garraiatzeko. Pertsonak ere bai, noski, baina beste bultzada ekonomiko hori gabe ez dut uste berriro martxan jarriko denik.

Gertuko trenbidea errekupeatzeko joerarik ba al dago munduan zehar?

Hirigunetan bai, ikusten da, trenbide zaharrak berrerabili dira tranbiak martxan jartzeko. Kontuan hartu trenak bide motzena egiten duela beti, hori dauka ona. Zumarragatik

Azkoitira errepidea bihurgunez bihurgune doa ibaiari segika, baina trena zuzen doa; eta malda gutxiarekin. Horregatik dira oso egokiak oinezkoentzat eta bizikletentzat.

Eta orduan, horrekin zer egin daiteke oraindik neurri handi batean mantentzen den azpiegitura? Beste erabilera bat izan al dezake Urolako trenbideak?

Hori da orain Vasco-Navarro trenaren inguruan egiten ari naizen lanaren oinarria. Trenbide zaharretako azpiegiturak astialdirako egokitu dira, batik bat, bide berdeak sortu dira zenbait lekutan. Baina astialdiaz aparte, nik uste

dut erabilera funtzionalagoak izan ditzaketela, eguneroko mugikortasun premiei erantzuteko, adibidez. Baina garrantzitsua da trenbidea oso-osorik hartzea, eta ez elementu isolatuen erabilera konkretua.

Vasco-Navarrori buruz galdetu baino lehen, Urolako trenaren kasuan, oinezkoentzat eta bizikletentzat egokituta dago zati handi batean.

Zumarragatik Azkoitiraino bide berdea da. Azkoititik Azpeitira bidegorria dago eginda, eta Azpeititik Lasaora trenbidea mantendu egin da, tren turistikoarentzat. Zati horretan bidegorria dago eginda, aparte. Eta Lasaotik Zestoara berriro Urolako trenaren bidea hartzen du bide berdeak. Tunela ere egokituta dago, argi eta guzti. Iraerataino iristen da. Handik Zumaia-ko tardea falta. Arazoa da Arroatik Zumaia trenbidea martxan dagoela [Donostia-Bilbo] eta hor alternatiba bat behar dela.

Hori da, hain zuzen ere, Arroako bizilagunek eskatzen dutena...

Bai, Arroa lotzea Narrondoko bidegorriarekin. Iraetatik Arroara doan zatian ez dago aparteko zailtasunik. Bidea osatuko balitz, mesede handia litzateke Arroakoentzat, Zumaia-azkar eta eroso etortzeko aukera izango lukete bizikletaz edo oinez. Narrondokoentzat, adibidez, sekulako mesede izan da Zumaia-ko bidegorria.

Vasco-Navarro trena aipatu duzu lehen. Zer tren zen hura?

Trenbide hark Mekoaldetik (Soraluze eta Bergara artean) Lizarrarainoko bidea egiten zuen, Gasteiztik pasata. Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa hartzen zituen. 1885ean hasi ziren eraikitzen eta lanak ez zituzten amaitu 1927ra arte. 1967an itxi

zuten. Hura ari naiz aztertzen orain nire doktore tesirako, Urolako lana egin nuenean sortu zitzaizkidan kezken bidez.

Azpiegitura osorik baloratzearena, ezta?

Hori da. Gaur egun eraikinak katalogatuta eta babestuta daude, eta batzuk beste zerbaitetarako erabiltzen dira; trenbideak ere bide berde bezala erabiltzen dira zenbait kasutan. Baina elementu bakoitza isolatuta hartu izan da orain arte. Lehen bazegoen azpiegitura bat, hainbat elementuz osatua, lurraldea lotzen zuena, funtzio jakin batekin; funtzio hori galdu duenean, elementuak banandu egin dira. Saiatu naiz proposatzen metodologia bat hori orokorrean aztertzeko. Aztertzen dira linearen eta horren inguruko lurraldearen arteko erlazioak. Linean zehar gaur egun dauden herriak hartu eta irisgarritasunaren ikuspegitik aztertu ditut, zer puntu diren irisgarriagoak, zer oztopo dauden. Azken finean, egunen batean proposamen bat egin nahi bada, guztiaren erradiografia edukitzeko.

Garraioaren ikuspegitik, gaur egun errepideek agintzen dute...

Bai, baina motorrik gabeko desplazamenduetarako, oinez edo bizikletaz mugitzeko, bide berdeen erreferentzia oso baliagarria izan daiteke. Ikerketek diote egunean ordubeteko bidaia egiteko prest gaudela, lanera joateko, adibidez; herri barruan, berriz, hamar minutuko joan-etorriak dira muga. Datu horiek kontuan hartuta, aztertu dut trenbideak eta geltokiek zer potentzialitate daukaten eguneroko mugikortasun horri erantzuteko; adibidez, geltokien inguruan hamar minutuko tartea hartzen duen espazioan zer gertatzen den aztertu dut, zer aktibitate dagoen, proposamenak egin ahal izateko.

Baina gaur egun astialdirako erabiltzen dira, batik bat. Iruditzen al zaizu eguneroko joan-etorrietarako erabilgarriak direla?

Gipuzkoan, adibidez, posible dela iruditzen zait, lurraldearen egituraketatik. Herri batetik besterako distantziak ez dira handiak. Debagoienan, bidegorriak herriak lotzen ditu eta hamar minututan iristen zara batetik bestera. Araban zailagoa da, distantziak handiagoak direlako. Baina Gasteiz inguruko herrientzat balio dezake, loturak sortzeko. Vasco Navarroken bide berdea gaur egun Landatik Gasteizera iristen da. Gasteiztik Lizarra alderako tartean zailtasunak daude. Badago hiru kilometroko tunel bat itxita dagoena, eta mendialdetik desbiratu behar da. Hori oztopoa da astialditik aparte erabileraren emateko. Gero, Kanpezu aldean berreskuratzeko trenbidearen jatorrizko bidea. Baina Lizarrara iritsi baino lehen errepideak moztu egiten du bidea. Horrek bere funtzionalitatea mugatzen du.

Eta Vasco Navarrok geltokiak mantendu al dira? Zer erabilera ematen zaie gaur egun?

Adibidez, Oñatikoan posta zerbitzuaren bulegoa dago, eta



“Azken urteotan industria ondarearen inbentarioa egin da, industria paisaiarena ere bai, eta hor ageri dira Vasco Navarro eta Urolako trenak”

Arrasaten INEMena. Araba aldean asko etxebizitza pribatuak dira. Maeztun udaletxea da, eta Lizarran autobus geltokia.

Trenbide sareko geltokiak gaur egun babestuta daudela diozu, baina industria ondarea duela gutxi arte ez da aintzat hartu.

Orain hasi gara pixka bat baloratzen. Industria osoa azkar garatzen eta eraldatzen da, eta guk ondarea beti lotu izan dugu eraikin oso zaharrekin, elizekin, gazteluekin... Azken urteotan industria ondarearen inbentarioa egin da, eta industria paisaiarena ere bai, eta hor ageri dira Vasco Navarro eta Urolako trenak. Horrek laguntzen du gero babes neurriak hartzen. Baina oraindik praktikan elementuak isolatuta hartzen dira, multzo osoa aintzat hartu gabe, eta bere izaera galtzeko arriskua dago. Lehen tximiniak gordetzen ziren, orain agian eraikin osoa. Baina izaera gal dezakete testuingururik gabe; anekdota hutsean gera daitezke.

Baina dena babestu behar al da? Zein da irizpidea?

Irizpidea bat baino gehiago izan daiteke, baina bat da bere singularitatea; hau da, mota jakin bateko bakarra edo azkena ote den. Dena den, inbentario bat egiten denean ez da proposatzen dena babestea, baina proposatzen denetik babesa lortzen duten arteko denboran asko desagertu egiten dira. ■



bidaiak
viajes ~ travel

ZURE GERTUKO BIDAIA AGENTZIA

LOREA URANGAK 20 URTEKO ESPERIENTZIA DAUKA TURISMOAREN ARLOAN. BIDAIA AGENTZIA TRADIZIONAL BATEAN LAN EGINDAKOA, DUELA HIRU URTE ETA ERDI, BIDAIA AGENTZIA ERREZEPTIBO BAT ZABALTZEKO IDEIA IZAN ZUEN: BASQUE DESTINATION. PROIEKTU HORREN BIDEZ, ATZERRITARRAK EUSKADIRA ERAKARTZEKO BIDEA ZABALDU DU. ORAIN, HANKA BERRI BAT GEHITU DIO HASIERAKO PROIEKTU HORRI: HERRITARRAK OPORRETARA JOATEKO AUKERA ESKAINTZEN HASI DA. HAIN ZUZEN, HORIXE DA BQD BIDAIAK.

BERMEA ETA ZIURTASUNA

Martxoaren 17an ireki zituen atea bqd bidaiak agentziak Zumaian (festa polita antolatu zuten Erribera kalean). “Ohiko bidaia agentzia bat da, eta gure helburua da herritarrei oporrak eta enpresei laneko bidaiak antolatzea, edozein dela ere helmuga turistikoa”, adierazi du Urangak. 517 bidaia agentzia biltzen dituen sare edo talde batean dago sartuta bidaia agentzia hori, eta bidaiariek oporrak lasai igaro

ditzaten lortu nahi du. “Edozer gertatzen dela ere, guk bermatzen eta ziurtatzen dugu arazo hori konpontzeko irtenbidea izango dugula”, nabarmendu du Urangak.

Internetek ematen dituen aukerak alde batera utzi gabe, agentziaren lana arazoak ekiditea da. “Internet oztopoa baino gehiago, zerbait osagarria da guretzat, eta egun, jendea berriro ere agentzietara bueltatu da, berme horren bila”.



APLIKAZIOA

Berrikuntza gisa, bqd bidaiak agentziak *Travel Angel* izeneko aplikazioa garatu du agentzia taldea osatzen duen gainerako bidaia agentziekin batera. Aplikazioari esker, bezeroarekin kontaktua etengabea eta zuzena da. “Hegaldi batek ordutegi aldaketa izan duela, bisitatzen ari zaren tokian erakusketa edo festa baten berri jakin dudala... Hori guztia aplikazioan sartuko dut, eta bezeroak edozein momentutan kontsultatzeko aukera izango du. Gainera, bidaiariak edozein zalantza edo arazo baldin badu, aukera ona da nirekin kontaktuan jartzeko”, aipatu du.





BI NORANKOKO HARREMANA

Urangak uste du bezeroekin harreman zuzena eta elkar trukekoa beharrezkoa dela. Horretarako, lehenengo printzipioa da bidaiarien sentsazioak partekatu, arazoak konpondu eta informazioa eta dokumentuak elkarrekin partekatzea. Hori dela eta, larrialdietarako telefono bat ere badute martxan, 24 orduz. “Telefono horretara deituta, beti egongo da norbait atenditzeko. Horretaz gain, bulegoaz haratago, aurretiazko zita bidez ere gelditu gaitezke. Bezero batek gaueko 9etan gelditu nahi duela taberna batean, lehenago ezin delako bulegora etorri? Gu prest gaude zerbitzu hori emateko”.

ANTOLAKETA BIKAINA

Urangak hainbat gaitasun ditu: esperientzia, leku askoren ezagutza eta antolaketarako gaitasuna. “Oso ohituta nago antolatzen. Horrek ahalmena ematen dit bakoitzaren bidaia askoz ere gehiago aprobetxatzeko. Bidaietako egunak, ordutegiak, hegaldiak... planifikazioan asko lagundu dezaket, eta gure zerbitzuak hartzen dituzten pertsonen bidaia gehiago aprobetxatu ahal izango dute”. Bidaia agentzia baten esperientziak eta antolaketa moduak lagundu egiten du norberaren esperientzia aberasten. “Are gehiago: denbora asko galtzen da helmuga turistiko bati buruzko informazioa aurkitzen, bisitatzeko lekuak zein diren jakiten, hotelak begiratzen.... Nik hori guztia eskaintzen dut. Aholkuak emango dizkiet bezeroei eta horien lana izango da etxean lasai-lasai informazio hori barneratzea”.

ESPERIENTZIA BERRIEN BILA

Laioak dira bakoitzaren neurria, beharretara eta ezaugarrietara egokitutako bidaia antolatzen. Berriki, DBHko 4. mailako ikasle batzuen kurtso amaierako bidaia bat organizatu dute. “Zerbait berezia izatea nahi genuen, eta ikasturtean zehar ikasi dutenarekin lotuta. Hala, gizarteko klaseetan, adibidez, diaspora zer den ikasi dute, eta, horren ondorioz, Bartzelonako Euskal Etxera joango dira hura ezagutzera. Horrekin batera, Greziako irletan lan egiten dabilen gobernuz kanpoko erakunde bat ere ezagutuko dute. Esperientzia berriak bilatzen saiatzen gara, bidaiei beste toke bat ematen”.

AITORPENAK

Basque Destination agentzia errezeptiboarekin nazioarteko eta Estatu mailako azoketan izan da Uranga gure kultura, gastronomia eta bizipenak erakusten. “Lan zaila da atzerriko jendea ekartzea, baina behin animatzen direnean, asko disfrutatzen dute”, aipatu du. Atzeritarrak ekartzen dituzten agentzietako ordezkaria da Uranga, eta hainbat aitorpen jaso ditu. Horietako bat, esaterako, *Forbes* aldizkari ezagunarena. “Euskadiri buruz erreportaje bat egin nahi zuten eta gurekin jarri ziren harremanetan. Erreportaje horretan Bilbo eta Donostiari buruz hitz egin nahi zuten. Hain gustura izan ziren Donostian, aparteko erreportaje bat eskaini zioten. Gure lanari erreferentzia egin zioten, gainera”, kontatu du. Abuztuaren, Donostiako Jazzaldira etorriko dira, eta berriro ere agentziakoekin jarri dira harremanetan.

Bestalde, *Luxury Travel Guide* izeneko aldizkari bateko rankingean sartu dituzte. “Agentzia onenen artean hautagai jarri gaituzte, eta jendeak botoa eman dezake bertan. Amaitzeko, gure esperientziak Tripadvisor atarian sartuta ditugu. Aitorpen horiek guztiek lanean jarraitzeko indar handiagoa ematen digute”.

bqd bidaiak
viajes - travel

Erribera kalea, 5
943 845 396
627 430 642

weba: bqdbidaiak.com zumaia@bqdbidaiak.com



@bqd_bidaiak https://www.instagram.com/bqd_bidaiak/



<https://www.facebook.com/bqdbidaiak>



twitter: <https://twitter.com/BQDBidaiak>



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES Izotzuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



diseinua
inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel.: 943 14 31 22 ■ fax: 943 14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t w i



AL-ANON

Alkoholikoen senide eta lagunen elkarteak

Tel. 650 265 963

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

Agurtzane Okindegia



Erribera 2 • 943 862 152



AIZPURUA

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

ALBERDI

dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 726188
943 143261



Amama taberna

tel.: 943 543 164
amamataverna@gmail.com

Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)



ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 Tel. 943 509 169

Ardantzabide

ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com f

Denda: Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 862 532 Tel.: 943 861 631

ARGISUN

ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Giroetzea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



OKINDEGIA
Arkupe

Nagusia 2 • tel. 943 861 501

ZUMAIA

OGI-EDER



Arruti
ARROPA DENDA

ANGELES SORAZU 1 BEHEA
943 543 406
20750 ZUMAIA (GIPUZKOA)



Bosch Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa Balaztak, ABS, ESP
Diesel injezioa Mantentze mekanika
Elektrizitatea/Elektronika Motorraren mekanika
Piztea Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943 861 485
autoszumaia@bosch-bcs.com

Azkue

www.ricardoazkue.com

Txomin Agirre 4, behea tel. 615 793 406 / 943 862 651
elena@ricardoazkue.com fax: 943 862 748



Bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25 tel./fax: 943 148 306
20740 Arroa bakun@euskalnet.net



Basadi albaitaritza

Ribaitaria Itaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310
www.basadialbaitaritza.com
www.basadialbaitaritza.com

Golez: 11-13 / Arrabaldor: 15-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan ituta
Lamiakobako: 605 728 737 Eltxez ebeko zerbitzua



BASUSTA
erretegia • asador

José Blázquez

Pafila Etxezarreta, 25 Tel.: 943 86 20 73
943 86 04 38
20750 Zumaia (Gipuzkoa) asadorbasusta@hotmail.com



Braky's

Okindegia • Kafetegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

Herritarren energia **garaile** atera zenekoa

BALEIKE +

TESTUA: IZASKUN URBIETA ESNAL

Garónako zentral nuklearraren berrirekieraren eztabaida puri-purian dagoen honetan, Euskal Kostaldeko Geoparkearen bihotzean, Sakoneta inguruan, Debako zentral nuklearra egin nahi zuen Iberduerok duela 50 urte. Deban sortu zen herri mugimenduak, inguruko herrietakoekin batera, zentralaren eraikuntza geldiarazi zuen.

1960ko hamarkada. Francoren diktaduraren azken etapa. Etorkizun oparoa ikusten zuten batzuek, beltza beste askok. Garai hartan, energia atomikoa lortzeko modua erregulatzen hasi ziren Espainian. Helburua teknologia berria ezagutzea zen hasieran, eta, horren ondoren, energia iturritzat hartzea, elektrizitatea produzitzeko. Apirilaren 29ko 1964/25 Legeak, energia nuklearrari buruzkoak, erregulatu eta abian jarri zuen Espainiaren behin betiko nuklearizazioa. Horrek, euskal kostaldean hainbat zentral nuklear eraikitzea bultzatu nahi zuen, tartean, Debakoa. Baina herritarren lanari eta mugimenduari esker, bertan behera geratu zen Iberdueroren proiektua.

1965eko uztailaren hasi ziren Espainiako lehen zentral nuklearra egiten, Guadalajaran. Hurrengo Garoñakoa izan zen, 1970ean. Handik bi urtera, berriz, Vandellokkoa eraiki zuten, Tarragonan. Energia nuklearraren aldeko apustua garbia zen, eta Euskal Herrira ere iritsi ziren asmoak; izan ere, urte horretan, bigarren belaunaldiko zentralak izenekoak egiten hasi ziren, tartean, Lemoizkoa. “1972an Elektrizitate Plan Nazionalea onartu zuten, elektrizitate sektorearen hazkundera antolatzeke asmoz. Beste zazpi erreaktore eraikitzeke asmoa biltzen zuen planak”, gogoratu du Pako

1973ko urriaren 22an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Debako zentral nuklearraren eraikuntzaren berria


Salegik, EZ, EZ, EZ *Debako zentral nuklearraren kontrako mugimendu herritarren historia* liburuaren egileetako batek.

Lemoizkoaz gain, euskal kostaldean hainbat zentral nuklear eraikiko zituztela zabaldu zen. Deban, Ogellan (Ispaster), baita Tuteran ere. Debaren kasuan, Mendata inguruan egin nahi zuten, Sakoneta eta Aitzuriren artean. “Energia nuklearraren beharra zegoela justifikatzeko astakeria hutsa zen txosten bat aurkeztu zuten. Deba, Zumaia eta Zesto hartuta, guztira 18.000 biztanle inguru zeuden orduan, eta txostenaren arabera, etorkizunean 40.000 biztanle izatera hel gintezkeen”, aipatu du Salegik. Inguruan aireportu bat jartzeko aukera ere aztertu zuten.

Zurumuruak entzuten hasi ziren aurrena herrian. “Enteratu ginen Sakonetan bidea zabaltzen ari zirela, eta zenbait mugimendu egiten ari zirela. Horretaz gain, bagenekien erostaila bat joaten ari zela inguruko baserriarren-gana, lurra saltzeko eskatuz. Gainera, meteorologia neurketak egiteko tresnak ipintzen ari ziren”, adierazi du. 1973an etorri zen, baina, guztien ahotan zebilen gaiaren baieztapena. 1973ko urriaren 22an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Debako zentral nuklearraren eraikuntzaren berria, eta Industria Ministerioak Gipuzkoan zuen ordezkariak ere baieztatu egin zuen. Proiektuaren berri jakitean, batzorde bat eratu zuen Debako herritar talde batek urte amaieran.

PAKO SALEGI

Pako Salegi debarra, EZ, EZ, EZ Debako zentral nuklearraren kontrako mugimendu herritarren historia liburuako egileetako bat eta Debako Arrisku Nuklearraren aurkako Batzordeko kidea.



IZASKUN URBETA

Arrisku Nuklearraren aurkako Batzordea

Boletinean atera orduko, Debako hainbat herritar elkartzen hasi ziren. Ezinegona zegoen herrian, eta nahiz eta energia nuklearraren inguruan ezer gutxi jakin, bazekiten ez zela onuragarria. “Gure lehendabiziko lana, beraz, informatzea izan zen. Bagenuen ezagun bat Estatu Batuetan master bat egiten ari zena, Jose Allende, eta hark bidaltzen zizkigun dokumentuak”, gogoratu du.

1974ko maiatzaren 21ean osatu zuten Batzordea formalki. Zortzi gizonezko aukeratu zituzten, bozka bidez. Horietako bat izan zen Salegi bera. “Batzordearen izena aukeratzeko garaian, iruditzen zitzaigun arriskuaren kontzientziakoa garrantzitsua zela. Ez genuen sartu nahi nuklearra bai edo ez eztabaida horretan. Arriskuaren berri izatea edo informatzea, hori zen gure nahia. Horregatik jarri genuen ‘arriskua’ hitza izenean”, nabarmendu du. Zentrala jartzeak arriskua zekarren, proiektu arriskutsua zen. Zentralaren gertutasuna zen Batzordearen argumentu nagusia. “Herrietatik oso gertu zegoen, eta horrek arazoak ekarriko zituen. 50 kilometro inguruan milaka pertsonari eragingo zion”, kontatu du.

Informazioa lortzea izan zen Batzordearen lehendabiziko lana. Partaideetako batek, Patxi Aldabaldetrekuk, Jose Ramon Rekalde abokatuarekin batera, Europara bidaiatu zuen 1974ko urriaren 18tik azaroaren 2ra. Parisen hasi zu-

ten bidaia eta Viena, Geneva eta Stockholmen ibili ziren. Unescorekin, Osasunaren Munduko Erakundearekin eta Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentziarekin izan ziren, besteak beste. “Aldeko eta kontrako argumentuak ezagutu nahi genituen, eta, horiekin, txosten bat osatu genuen”.

Batzordearen eginkizun nagusia, horren ondoren, hitzaldiak ematea izan zen. Herriz herri joan ziren hitzaldiak ematen (Deban, Zumaian, Zarautzen, Donostian, Eibarren...) eta energia nuklearraren berri azaltzen. Aranzadik, berriz, txosten bat osatu zuen energia nuklearraren inguruan alertan ipiniz. “Haiek egindako lana guretzat oso baliagarria izan zen. Jesus Altuna eta Pablo Aresok, adibidez, lagundu egiten gintuzten hitzaldietara eta Aranzadiren ikuspuntua ematen zuten”, gaineratu du.

Kontrolaturik

Batzordeko kideek beldur pixka bat zutela aitortu du Salegik. “Baina lanerako gogoia genuen eta informazioa helaraztea zen gure helburua. Horretaz gain, abilitadea izan genuela uste dut legearen muga horretan ibiltzen. Garbi-garbi legez kanpo ibili bagina detenituta eta abar ibiliko ginen, eta ez genuen ezer ere lortuko”, esan du.



JAVIER CARBALLO

Izan ere, Gobernu Zibilaren kezka nagusia Batzordeak erabiltzen zuen dirua nondik zetorren jakitea zen. “Guk liburua, txostenak, dokumentuak, pegatinak... publikatzen genituen, eta, noski, kezka zuten horren atzean zer edo zein egongo ote zen. Baina diru hori jendearen borondatek eta Deban zeuden denda, enpresa eta abarrek emandako laguntzetatik ateratakoa zen. Autofinantzazioa izan zen gure ardatza”, gogoratu du. Baina gobernuko funtzionarioak gustura



basquestay

Alokairu Turistikoak

Zure etxebizitza alokatu nahi baduzu,
guk erraztuko dizkizugu lanak.

Bezeroari giltza eman, apartamendua garbitu...

Bulego berria daukagu Zumaian, Etxezarreta kalean.

**informazio
gehiago:**

Tel. 606 747 756
info@basquestay.com

www.basquestay.com

ez, eta pare bat aldiz joan behar izan zuten Donostiara deklaratzera Batzordeko lehendakariak, Jose Maria Izagak, eta diruzainak, Jose Luis Irustak. “Nola edo hala kontrolatuta geundela esan daiteke, garaiak ere halakoak ziren”, esan du.

Kontrol hori poliziaren informe batzuetan ikusi dute, liburu egiteko ikerketa abiatu zutenean. Hain zuzen, hitzaldiak ematera joaten zirenean, polizia joaten zen herritarrez jantzi-ta zer gertatzen zen ikusteko. “Jakina-ren gainean geunden, egia esan, baina orain ohartu gara baietz, bigilatu egiten gintuztela eta informeak eta guzti idatzi zituztela”. Zumaian egin zuten hitzaldi baten informea aurkitu zuten, esaterako. Hitzaldiak toki publikoetan egiten zituzten, baina kasu batzuetan elizan edo txokoren batean ere eman zituzten, erdi ezkutatuta. “Poliziak gure lanari segimendua egiten zion eta Gobernadore Zibilaria kontatzen zion zer egiten genuen, eta zer publikatzen genuen. Noski, dena baimenik gabe eta ahal bezala egiten genuen”.

Debako Udalaren jarrera

Batzordearen lana eraginkorra izan zen, eta gizartea eta iritzi publikoa mugitzea lortu zuten. Zenbait faktorek lagundu zuten zentralaren aurkako jarrera zabaltzen; logotipoa izan zen horietako bat. Egilea Eduardo Chillida izan zen. Jose Maria Izagak laguna zuen, biek elkarrekin jokatu baitzuten Realean. Hala, Debako proiektuarekiko eta euskal kostalde nuklearrekiko oposizioa sinbolizatuko zuen logotipoa diseinatu zuten.

Gobernu Zibilaren kezka nagusia Batzordeak erabiltzen zuen dirua nondik zetorren jakitea zen

1973an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak baieztatu zuenean Debako zentral nuklearraren eraikuntza, eta 30 egun egon ziren alegazioak ipintzeko. Debako Udalak ez zuen errektorsorik jarri. Batzordeak, orduan, Udalaren jarrera aldatzeko asmotan, sinadura bilketa jarri zuen martxan. “Sinadura bilketak arrakasta handia izan zuen. 1.500 firma lortu genituen. Gure nahia Udalak, formalki, kontrako postura agertzea zen”, kontatu du.

Hasiera hartan, baina, bi erakundek eta pertsona batek errektursoa aurkeztu zuten: Aranzadik, Mutrikuko Udalak eta Manuel Maria Escudero Ruedak. “Azken hori gizon frankista bat zen, Francok aukeratua Madrilgo gorteetarako. Baina kezkatuta zegoen. Gizon horren papera asko azpimarratzen dugu. Euskal kostaldean hainbeste zentral nuklear egiteko eskubiderik ez zegoela esan zuen gorteetan, eta errektursoa ere jarri zuen”, gogoratu du.

Debako Udala, baina, ez zen kontra azaldu hasieran. “Alkateak esaten zuen itxaron egin behar zuela eskaera formala jaso arte; izan ere, obra lizentzia emateko eskumena Udalak zuen. Aipatzen zuen horregatik ez zuela errektorsorik jarri, oraindik eskaera ez zuelako jaso, alegia. Errealitatea da geroago kontra jarri zela Udala ere, baina hein handi batean mugimendu hura sortu zelako herrian eta inguruetan”, azpimarratu du.

Hala, 1974ko maiatzaren 17an Udalak erabaki zuen Iberdueroren lizentziarik gabeko obrak geraraztea, eta, bide batez, ekainaren 10ean esan zuen herrian zentral nuklearra jartzea-



MAIATZAK

11

ZUMAIAKO BM BERRIAREN
IREKIERA HANDIA

A R D A N T Z A B I D E A 2 - 10

Aldea dago Etorri eta probatu



Eraman ezazu komuneke
2 toallako sorta

OPARI*

* Sustapena maiatzaren 11n, 12an, 13an eta 15ean izango da baliozkoa Ardantz a bidea 2-10 helbideko BM supermerkatu berrian (Zumaia) egindako 25 euroko gutxieneko erosketagatik.

ETXERAKO
ZERBITZUA

DOAN

Ekainaren
30era arte.

bmsupermercados.com



aldea dago

Istorio honetako galtzaileak: Inguruko baserritarrak

Debako zentral nuklearra Mendata inguruan eraikitzeak zen, eta horretarako lurzoru zabala behar zen. Inguruko baserritarrak izan ziren kaltetu nagusiak. Iberduerok hainbat baserri erosi zituen, abiatu zuen salerosketa estrategiari jarraituz. Engainua eta ezjakintasuna izan ziren bide horren gidariak. Desjabetzearen beldurra sartu zioten hainbat baserritarri, eta horrek baserriak eta lurrak merke saltzea eragin zien.

Hala, Iberduerok zortzi baserri hauek erosi zituen: Iturritza, Mendata, Uzkangagoikoa, Uzkangazpikoa, Sakoneta, Arantzabekoa, Arantzagoikoa eta Uztartza. Azken horretan bizi zen Xabin Urbietak, bere guraso, emazte eta lau seme-alabekin batera. Juan Kruz Urbietak eta Juliana Txurrukaren maiorazkoa zen Xabin, eta hori zela eta jarraitu zuen bizitzen baserrian.

Uztartza saldu aurretik, Mendata eta Arantzagoikoa saldu zituztela gogoratzen du Urbietak. “Horregatik jakin genuen zentral nuklearra egin nahi zutela gure etxe ondoan”, aipatu du. “Segurola etorri zen baserrira. Iberdueroko ingeniari edo arduradun bat. Gizon euskalduna, jatorra, dotorea, altua zen. Baserria erosiko zigula aipatu zigun. Baserria eta gure lurrak”, jarraitu du. Hain zuzen, inguruko hektarea gehien zituen baserrietako bat zen Uztartza, guztira 200.000 metro koadro. “Dena erosiko zigula esan zigun”.

Aitarekin egin zuen tratua Segurolak. “Gure aita amorratzen zegoen saltzeko. Beste baserritarrek dirua hartu zutela jakindakoan, berak ere hori nahi izan zuen. Dirua hartzea zen kuestioa. Diruak jendea engainatzen du eta hori gertatu zen”, adierazi du.

12 milioi pezeta eman zizkieten baserria eta lurrengatik. Ordurako diru dezente zen. “Aitak orduan 70 urte inguru izango zituen. Baserritarren erretiroa zuen, eta diru hori hartu ondoren, bizitzeko nahikoa bazuen. Baina ni baserritik bizi nintzen, eta zer egin behar nuen baserria saldu ondoren? Nora joan? Non lan egin? Nola atera familia aurrera?”, esan du.

Segurolak agindu zion zentral nuklearrean lana emango ziola, baina Xabinek ez zuen ezer ere jakin nahi izan. Seme-alabak hartu eta Zumaiaara joan ziren bizitzera. Emaztea Endañeta baserrikoa du, eta hark Zumaia ongi ezagutzen zuen. Familia aurrera ateratzeko lanera joan behar, eta Egurkon hasi zen lanean. Hor hartu zuen erretiroa 18-20 urteren ondoren.

“1975eko urtarilaren 6an etorri ginen Zumaiaara, gauez. Anaia gazteak ekarri gintuen kotxean. Emaztea eta hiru seme-alabarekin etorri ginen. Seme zaharrena baserrian gelditu zen. Debara joaten zen eskolara eta azkenengo ikasturtean zegoenez, han amaitu nahi zituen ikasketak. Nire gurasoeekin



gelditu zen, ikasturtea bukatu arte”, kontatu du. Gero, semea Zumaiaara etorri zen, eta gurasoak Zarautzera joan ziren bizitzera. Baserria abandonatua gelditu zen. Handik urte batzuetara guztiz bota zuten.

Beraiek handik alde egiterako, zentrala eraikitzeak lan txiki batzuk egiten hasi zirela gogoratzen da. “Arantza aldera kamioiak azaldu ziren eta hormigoia botatzen ere hasi ziren. Uzkanga eta Sakoneta artean ere presa egiten hasi ziren, baita gure etxea eta Azti artean ere. Muestrak hartzen ere ibili ziren”.

Penaz gogoratzen du ordurako garai hura. Gustura bizi zen han eta goizetik gauera bizimodua aldatu beharra izan zuen.


“Behi pinta gorriak nituen, kategoriakoak, ardi mordoa eta idi pareak. Goiak beheak jota gelditu nintzen”, azpimarratu du. Ikaragarri gogorra egin zitzaion handik alde egitea. Bizi izan duen esperientziarik txarrenetako bat. “Kostatu zitzaidan Zumaiaara ohitzea, bai, dezente. Hasierean kalera ez nintzen asko ateratzen. Tailerrean lan egin, eta handik Foronda inguruan nuen baratzerara joaten nintzen. Baserriari lotuta egoteko modu bat zen”, nabarmendu du.

Iberduerok erositako terrenoa eta baserri horiek, ondoren, Diputazioak erosi zituen. 108.250.000 pezeta (650.000 euro) ordaindu zituen. Gaur egun, Diputazioak bi baserri bakarrik itzuli dizkie, ordainduta, lehengo jabeek: Sakoneta eta Uzkangazpikoa. Beste guztietatik, jada ez dira existitzen Iturritza, Mendata, Arantzabekoa eta Uztartza. Arantzagoikoa baserriak zutik jarraitzen du, baina ez da inor bizi. Beraz, bi uzkangetan (Uzkangazpikoa eta Uzkangagoikoa) eta Sakonetan bizi da norbait.

“Ni baserritik bizi nintzen, eta zer egin behar nuen baserria saldu ondoren? Nora joan? Non lan egin?”

ZURE EKARPENAK, EGUNEROKOAN ONURA. GOGOAN HARTU.

Aurten, aurrekontuaren ia erdia bideratu da gizarte politiketara. Ekonomia sustatzea eta enplegua sortzea ere lehentasuna dira. Hori, eta gehiago. Eta guztia, zu onuradun izan zaitezten.



Mari Karmen,
donostiarra.
Erretiratu.

- A** 8 milioi € Pasaialdea biziberritzeko.
- B** Erreferentziazko Zahartze eta Osasun Zentro Aurreratuaren sorrera Pasaian.
- C** Mendekotasun laguntzak jasotzen dituzte 16.000 pertsonak hilabetero.
- D** 5.000 pertsonak laguntza jasotzen dute etxean. Atsedeen programak zaintzailearentzako.
- E** Lurraldebus: erretiratuentzat tarifa bereziak, %100eko hobariekin.
- F** Kultur ekitaldi handiei laguntza: Zinemaldia, Jazzaldia...

Arrisku Nuklearraren kontrako Zumaiako Komisioa



Ezkerretik eskubira: Felix Idigoras, Iñaxio Manterola, Javier del Pilar eta Javier Carballo.

Zentral nuklearra ez eraikitzeko mugimendurik garrantzitsuena Deban izan zen. Bertan sortu zen Arrisku Nuklearraren aurkako Batzordeak eraman zuen herri mugimenduaren gidaritzaz urte haietan, baina inguruko herrietan ere sortu ziren hainbat komisio. Hain zuzen, Zumaiako taldea izan zen, Debakoaz aparte, lehenengoa. Jesus Olaizolaren gidaritzapean, bospasei lagunek osatu zuten Arrisku Nuklearraren kontrako Zumaiako Komisioa, eta besteak beste, hauek aritu ziren: Ignacio Sasiain, Felix Idigoras, Javier Del Pilar, Javier Carballo, Juan Ignacio Mendia apaiza, Iñaxio Manterola...

“Ez naiz gogoratzen nola elkartu ginen. Nik neuk energia nuklearrari buruz zerbait irakurria nuen lehenagotik. Deban zentral bat eraiki behar zutela jakin genuenean, Aranzadik emandako hitzaldi bat izan zen Donostian, 2-3 hilabetera. Joan egin nintzen. Han entzundakoak bultzatu ninduen zentrala eraikitzearen kontrako borroka horretan sartzera. Oso arduratuta nengoen, eta galdetzen nion neure buruari: ‘Inori ez zaio axola gai hau? Zentraletik 2 kilometrora biziko naiz?’, kontatu du Del Pilarrek.

“Olaizola izan zen herria alerta jarri zuena. Kimikari-fisikaria zen eta maisu aritzen zen, klaseak ematen, Maria eta Josen eta Zarauzko Antonianoetan. Nire irakaslea zen”, jarraitu du Manterolak. “Komisio horretan egoteaz gain, Olaizolak erlazio handia zuen medikuekin, farmazeutikoekin... Herri batzuetara hitzaldiak ematera ere atera zen bere esperientzia azaltzera”, gaineratu du Carballok.

Komisioaren helburua Zumaiako herritarrek kontzientziaztea zen. Baina nolakoa izan zen herriaren erantzuna? “Kontrako iritzien artean ere bi pentsamolde zeuden: zentral nuklearraren kontra zeudenak, eta zentrala Deban egitearen alde ez zeudenak. Gero, hirugarren masa bat zegoen. Horiek ez ziren arduratu ere egin”, kontatu du Carballok. “Garrantzitsua hirugarren masa hori zen. Jende asko alde zegoen, eta ez naiz Zumaiako herriari buruz ari, oroko-

rean baizik. Arzallusek esaten zuen ez bazen zentralik egiten kobazuloetara bueltatuko ginela. Askok aurrerabidea ikusten zuten, eta guk, beraien ustez, progreso hori oztopatzen genuen”, gehitu du Manterolak.

Komisioaren eginkizunak

Bilboko Ingeniaritza Eskolan bazen fisika nuklearreko katedradun bat, prestigio handikoa, Juan Carlos Zabalo izeneko. *Ventajas e inconvenientes de las centrales en la costa vasca* izenburua zuen gutun bat idatzi zuen. Bertan, teknologia nuklearraren segurtasunaz mintzatu zen, eta erabateko argudio positiboak plazaratu zituen. “Gizon hark hori esaten bazuen, zer pentsatuko zuen gizarteak? Fisiko nuklear garrantzitsua zen, eta gure lana ezerezean uzten zuen askorentzat. Garai haietan ezin zen pentsatu ere egin horrelako jendeari kontra egitea”, adierazi du Carballok.

Hori dela eta, Debako Batzordearen lana, hasieran, eta Aranzadirena, jarraian, garrantzitsuak izan ziren iritzi publikoak aldatzeko. Zumaiako Komisioaren eginkizuna, Debako Batzordearen lanari jarraipena ematea izan zen. Hala, 1974ko abuztuan, hitzaldi bat antolatu zuten Aita Marin. “Zer gertatzen zen kontatu nahi genion herriari”, adierazi dute. Debako Batzordeko Carmelo Urdangarin eta Patxi Aldabaldetrekuek etorri ziren hitzaldia ematera. Arrakastatsua izan zen, leporaino bete zen zinea.

Hitzaldiaz gain, txosten bat atera zuten Komisioko partaideek. *Deba 'ko atomika-etxea dala-ta* izenburupean, zentrala izaiteak sor zitzakeen kalteen berri ematen zuten. Txosten hori etxer etxe banatu zuten. “Paper horiek egitera Apaizetxera joaten ginen”, gogoratu du Idigorasek. Izan ere, Komisioko partaide zen Juan Ignacio Mendia apaiza. Orduan ez zegoen fotokopiagailurik. Dokumentua etxeetan banatzeko diptiko gisa egin zuten eta kopiak multikopista izeneko tresna batekin egiten ziren. “Multikopista bat Don Teodoro Bikuña parrokoak zuen, eta gu Mendiaren bidez joaten ginen harengana kopiak ateratzera.

“Askok aurrerabidea ikusten zuten, eta guk, beraien ustez, progreso hori oztopatzen genuen”

Beste inon ezin zen eduki tresna hori; bestela, Guardia Zibilak jasotzen zuen”, gogoratu du Carballo. “Garai hartan, mugimendu guztiak elizaren anparoen egiten ziren. Gure bilerak ere *Padres de Familian* egiten genituen, Aita Mari zinean”, jarraitu du Manterolak.

Tentuz jokatu beharra


Olaizola izan zen Zumaiaiko Komisioaren liderra. “Gaiari buruz zerbait zekiena bera zen, eta gu informatzen hasi ginen. Hark esan zigun Deban jarri behar zuten erreaktorea Westinghouse bat zela. Ameriketako ereduak zen, han ordurako ilegala zena. Zirkuitu irekiko sistema zuen. Itsasotik ura hartu, hoztu eta berriro itsasora botatzen zuen. Baina, horretaz gain, arazoa zen izugarritzko zentral pila egin behar zituztela kilometro gutxian, eta megawatt asko elkartuko zirela euskal kostaldean”, kontatu du Manterolak.

Olaizola bera ere hitzaldiak ematen ibiltzen zen. Badu Idigorasek anekdota bat. “Olaizolak Urretxun konferentzia bat eman eta etxera bueltan ginela, guardia zibilaren kontrol batekin topo egin genuen. Dokumentazioa ateratzeko eskatu ziguten. Zein zen ohartu zirenean, ‘Perdone usted, sigan’ esan eta aurrera egin genuen”, kontatu du. Olaizola, Gerra Zibilean armadan ibilia zen, eta teniente izandakoa zen.


Garai hartan, Zumaiaiko korrespontsala zen Carballo *El Diario Vascon*. Gogoratzen du Debako Batzordeko bi kidek Zumaian hitzaldi eman zutenean herritarrez jantzitako bi guardia zibil ere han egon zirela. “Pentsa zer garai ziren..., tentuz jokatu beharra izaten genuen. Behin, guardia zibil batek deitu zidan galdezka ea zergatik publikatu nuen gai horri buruzko zerbait egunkarian. Nik *El Diario Vascon* bertan zentsura nuela aipatu nion. Bidalitzen nuen guztia irakurri eta errepasatzen zuten. Joakin Ormaetxea zen publikatu edo ez baimentzen zuena; beraz, nik ez nuela zerikusirik esan nion”, azaldu du.

